

IRAKASKUNTZA LAIKOAREN ALDE, BUSTIKO GARA

Laizismoak pentsamendua eta kontzientzia-askatasunerako eskubidean eta ideien araberrako diskriminaziorik ez jasateko eskubidean du oinarri. Laizismoak kultu-askatasuna bermatu egiten du, baina ez du onartzen edozein elizak ez dagokion pribilegio edo lekurik bereganatzea.

Jendarte laiko batean pertsona guztiek dute lekua, eta agintariek erlijio-askatasuna babesten dute, hala nola sinesbide zein filosofia desberdinak. Haatik, demokrazia aurretiko pribilegio handiak dituzten hainbat sektore saiatzen dira laizismoa balore falta eta antiklerikalismoarekin lotzen, iritzi publikoa nahastu nahirik.

Eskola publikoak zientzia- eta giza-balore unibertsaletan hezi behar du, hau da, pluraltasunean, giza-eskubideen errespetuan, diferentziak eta aniztasunaren onarpenean, pertsona guztientzako balore etiko ez-sexista eta demokratikoetan, dogma eta egia bakar eta baztertzailerik gabe.

Eskolak ez du baztertzeko lekua izan behar. Umeak ez dira banatu behar beren familien sinesmen edo fedearen arabera. Ezin dugu onartu erlijiora ez doazenak ikastaldetik at egoteko beharra, ezta irakaspen erlijiosoak eskolaren ordutegian inposatzearen, ezarri nahi dituzten denboretara eta beste exijentzietara moldatzeko beharra ere. Horregatik guztiagatik erlijioak eskola-ordutegitik atera behar du, hori baita bidea eskola komunitatearen kide guztien eskubideak errespetatzeko eta ikastetxeen antolaketa normaltasunez funtzionatzeko. Eskola publiko, demokratiko eta laikoaren alde finko egitea berme bat da hezkuntza eredu berria nahi badugu: osoa, inklusiboa, desberdintasunen konpentsatzailea, aniztasunean eta elkarbizitzan hezten duena.

Eskolak ez du erlijio-doktrinak zabaltzeko lekua izan behar; horregatik STEE-EILASen uste dugu badela ordua eztabaida hau irekitzeko, matrikula kanpaina baliatuz non erlijio ikasgaia derrigorrez eskaini behar, hezkuntza komunitate osoan: klaustroetan, Eskola Kontseiluetan, guraso elkarteetan ... eta hezkuntza proiektu laikoa, pertsona guztientzako balore unibertsalak bultzatzen dituen aldarrikatzen dugu

Erlijio irakasgaiak ikas ordutegian, ordutegi komun eta integrala apurtzen du eta beste area eta irakaspenei garatzeko denbora ebazten du. Indarrean dagoen arautegiarekin erlijio irakasgaiak 945 ordu inguru betetzen du Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta beste 450 DBHn, hau da, Arte Hezkuntza edo Gorputz Heziketa irakasgaiak baino gehiago.

LOMCE lege berriak erlijioa espediente akademikitik eta eskola ordutegietatik kendu beharrean, hori baita jendarte gehienak eskatzen duena, Estatua Gotzainen eskaeraren zerbitzuan jartzen da eta erlijioa aukeratzen ez dutenei haren ordezkot sendo bat irakasteko derrigortasuna ezartzen du. Gainera, hiritartasuna Heziketa kentzea lortu dute Elizarentzat gai polemikoak: Askatasun sexuala, sexu bereko matrimonioak, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, familia mota ezberdinak,... mahaigaineratzen zituelako.

Hori guztia dela eta erlijioa curriculumetik eta eskola ordutegitik kanpo, hau da Eskolatik kanpo geratzea eskatzen dugu.

STEE-EILAS



POR UNA ESCUELA PÚBLICA Y LAICA, NUESTRA IMPLICACIÓN ES NECESARIA.

El laicismo responde al derecho que tiene toda persona a ejercer la libertad de pensamiento y de conciencia, a no ser discriminada en función de las ideas. El laicismo además de garantizar la libertad de culto impide que las distintas iglesias ocupen espacios y obtengan privilegios que no les corresponden.

En una sociedad laica caben todas las personas y los poderes públicos protegen y amparan la libertad religiosa y los distintos credos y filosofías. Sin embargo sectores que gozan de fuertes privilegios procedentes de la etapa predemocrática tratan de confundir a la opinión pública relacionando el laicismo con la falta de valores y es anticlericalismo.

La escuela pública ha de educar en valores humanistas científicos y universales, en la pluralidad, en el respeto a los derechos humanos, en la asunción de la diferencia y de la diversidad, en los valores éticos, no sexistas y democráticos que son comunes a todas las personas, es decir sin dogmas, ni verdades únicas y excluyentes.

La escuela no ha de ser un lugar de exclusión. Niñas y niños no deben ser segregados en función de las creencias o convicciones de sus familiares. No podemos aceptar que se obligue a quienes no asisten a religión a estar separados de su clase y a adaptarse al horario y exigencias de quienes desean seguir imponiendo esas enseñanzas en el horario lectivo. Por todo esto la religión debe salir del horario lectivo para respetar los derechos de toda la comunidad educativa y para que no se interrumpa el normal funcionamiento de la organización de los centros educativos. Una apuesta decidida por la escuela pública, democrática y laica es una garantía para avanzar hacia un modelo educativo integral, inclusivo, compensador de desigualdades y que eduque en la diversidad y para la convivencia.

Puesto que la escuela no es el lugar adecuado para difundir la doctrina religiosa, desde STEE-EILAS pensamos que ya es hora de abrir este debate, aprovechando la campaña de matriculación en la que hay que ofertar obligatoriamente la asignatura de religión, a toda la comunidad educativa: en los claustros, en los Consejos Escolares, en las AMPAS, en las familias...y reivindicar un proyecto educativo laico, que propicie los valores universales comunes a todas las personas.

La asignatura de religión interrumpe el funcionamiento común e integral del horario lectivo e impide que ese tiempo se dedique a desarrollar otro tipo de áreas y aprendizajes. Según la normativa actual esta asignatura ocupa una media de 945 horas en el conjunto de las etapas de Infantil y Primaria y de 450 horas en la ESO, una carga superior a la de materias tan importantes como la Educación Física o la educación Artística.

Además con la nueva Ley de Educación LOMCE todo esto se agrava y en vez de retirar la religión del expediente académico y del horario escolar, el Estado se pone al servicio de las demandas de los Obispos, introduciendo la obligatoriedad de impartir una asignatura alternativa fuerte a quienes no elijan religión. Además se han salido con la suya de suprimir Educación para la ciudadanía, asignatura que planteaba cuestiones polémicas para la Iglesia como: libertades sexuales, matrimonio entre personas del mismo sexo, igualdad entre mujeres y hombres, nuevos modelos familiares,...

Por todo esto pedimos que la asignatura de religión deje de formar parte del currículo y del horario escolar, saliendo de la Escuela

STEE-EILAS

